



## DANTZA IKASTAROAK 2019-2020

A TALDEA osatzen duten Oinkariko dantzariak ez dute matrikula egin eta ordaindu behar (izen-ematea eginda dute). Gainerako dantzariak izen-ematea burutu behar dute ondoren zehazten diren pausoak jarraituz.

### **Izen ematea burutzeko pausoak:**

- 1- Izena eman (Ekainaren 15etik Uztailaren 31era)
- 2- Matrikula ordaindu (Ekainaren 15etik Uztailaren 31era)
- 3- Entsegu ordutegi-zerrendak argitaratu (Abuztuaren 15ean)
- 4- Entseguak hasi (Irailaren 9an)

Jarraian puntu bakoitzaren ezaugarriak adieraziko ditugu:

### 1- IZENA EMAN

#### - **Eman beharreko datuak:**

DANTZARIAREN IZENA:

BI ABIZENAK:

JAIOTEGUNA:

TELEFONO MOBILA (WhatsApp zerbitzua duena):

HERRIA:

MUTILA ALA NESKA:

#### - **Izen emateko bide ezberdinak:**

- a) E-mail bidez: bidali goian definitutako datuak ondoko helbidera: harremanak@oinkari.eus
- b) Telefonoz: deitu 660139380 (Ordutegia: 09:00-12:00)
- c) WhatsApp bidez: bidali goian definitutako datuak mezu bidez ondoko telefonora: 660139380.

- **Izen ematea ireki**: Ekainaren 15ean

- **Izen ematea itxi**: Uztailaren 31ean

## 2- MATRIKULA ORDAINDU

Dantzariak bi ordainketa egin behar ditu:

- a) **Matrikula:** Ikastaroetan izena ematen duten dantzari guztiek 20 € matrikula ordaindu beharko dute. Ordainketa Uztailaren 31 baino lehen egin beharko da, izena eman ondoren. Ordainketa egiten ez duten edo izenik ematen ez duten dantzariak ez dira Abuztuaren argitaratuko ditugun ordutegi-zerrendetan agertuko. Beraz ezinbestekoa da izena ematea + matrikula ordaintzea. Matrikulako dirua ez da itzuliko.

Ordainketa burutzeko bide bakarra -> transferentzi bidez ondoko edozein kontu korrontetan:

CAJA LABORAL      3035 0046 72 0460701408

KUTXABANK        2095 5072 67 1069412061

OHARRA 1: transferentzia burutzean, DANTZARIAREN IZEN-ABIZENAK eta MATRIKULA hitza zehaztu behar dira. *Adibidez: June Sarasola Esnaola – Matrikula*

OHARRA 2: matrikula ordaindu aurretik, izena eman behar da.

- b) **Kuotak:** urtero bezela dantzariak kuotak ordaindu beharko dituzte. Kuotak ordaintzeko bi modu daude:

- **Kuota bakarra:** ordainketa bakarrean urte guztia ordaindu (kurtso haseran).
- **Urtean zehar hiru kuota:** dantzariak 3 ordainketa egingo ditu:

**Kuota 1:** Urria

**Kuota 2:** Otsaila

**Kuota 3:** Maiatza

Ordainketa burutzeko bide bakarra -> transferentzi bidez ondoko edozein kontu korrontetan:

CAJA LABORAL      3035 0046 72 0460701408

KUTXABANK        2095 5072 67 1069412061

OHARRA: transferentzia burutzean, DANTZARIAREN IZEN-ABIZENAK eta KUOTA ZENBAKIA zehaztu behar dira. *Adibidez: June Sarasola Esnaola – Kuota 2*

## 3- ENTSEGU ORDUTEGI-ZERRENDAK ARGITARATU

Abuztuaren 15ean argitaratuko dira ordutegi-zerrendak. Bertan, izena eman duten + matrikula ordaindu duten dantzariak soilik agertuko dira. Zerrendak ikusgai:

- Oinkariko web gunean: [www.oinkari.eus](http://www.oinkari.eus) (“ikastaroak” atalean)

## 4- ENTSEGUAK HASI

Entseguak Irailaren 9ko astean hasiko dira, bakoitzari egokitzen zaion egunean.